Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1725

EBAZPENA, 2008ko urriaren 27koa, Ingurumen sailburuordearena; honen bidez, Gorlizko hustubidearen itsaspeko zatiaren proiektuak Ingurumenean duen Eraginaren Adierazpena formulatzen da; Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak sustatzen du proiektua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B atalean agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko prozedura bete behar dute, eta prozedura horri amaiera emateko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio erabakiaren aurretik.

Eman zaio hasiera Gorlizko hustubidearen itsaspeko zatiaren proiektua onartzeko prozedurari; Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak sustatzen du proiektua. Besteak beste, azpiko zerrendan adierazten diren izapideak egin dira, proiektu horri lotuta, xedapen hauetan ezarritakoa betez: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua eta hori garatzeko Araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua.

– Kontsulten izapidea. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatuta, 2007ko abenduaren 11n eman zion hasiera Ingurumen Sailburuordetzak kontsulten izapideari, xedapen hauetan ezarrita dagoen bezala: Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzazko Errege Dekretua betearazteari buruzko Araudia onesten duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuko 13. artikulua eta hurrengoak. 2008ko otsailaren 14an eta 27an, aurre kontsulten izapidean jasotako txostenen kopia bidali zitzaion proiektuaren sustatzaileari.

– Jendaurrean jartzeko izapidea. Organo eskudunak jendaurrean jarri zituen proiektua eta proiektu horrek ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorako azterlana (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 107. zk., 2008ko ekainaren 5a).

– Dosierra bidaltzea. 2008ko abuztuaren 8an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Ingurumen Sailburuordetzara bidali zuen dosierra, irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1725

RESOLUCIÓN de 27 de octubre de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Emisario de Gorliz, tramo submarino, promovido por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento de aprobación del proyecto de emisario de Gorliz, tramo submarino, promovido por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como en el Real Decreto Legislativo 1302/1986 de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y en el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en relación con el mismo, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan:

– Trámite de consultas. A petición del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, con fecha 11 de diciembre de 2007 la Viceconsejería de Medio Ambiente dio inicio al trámite de consultas previsto en el artículo 13 y siguientes del Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución del Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental. Con fecha 14 y 27 de febrero de 2008 se remitió al promotor del proyecto copia de los informes recibidos en el trámite de consultas.

– Trámite de información pública. El órgano con competencia sustantiva sometió el proyecto y el correspondiente estudio de impacto ambiental al trámite de información pública (Boletín Oficial de Bizkaia n.º 107, de 5 de junio de 2008).

– Remisión del expediente. Con fecha 8 de agosto de 2008 el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia remitió el expediente a la Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo con lo previsto en el artículo 16 del anteriormente citado Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre.

Aipatutako proiektuaren dosierrean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertu dira. Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa zuzena dela ikusi da, eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitu egiten zaiela. Ingurumen Sailburuordetza da Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena emateko eskumena duen organoa, xedapen hauen arabera: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua.

HAU EBATZI DA:

1.– Gorlizko hustubidearen itsaspeko zatiaren proiektuak Ingurumenean duen Eraginaren Adierazpen hau egitea. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak sustatzen du proiektua, eta adierazpena aldekoa izan da.

2.– Proiektua gauzatzeko baldintzak finkatzea. Baldintzak lotesleak dira, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 47.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hona hemen baldintzak:

2.A.– Proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera gauzatu beharko da proiektua, eta, bereziki, Ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 50. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Proiektuan egingo diren aldaketa jakinak, aurreko paragrafoan adierazitakoen garrantzirik izan ez eta lanak burutzeko falta diren gainerako prozeduretan sortzen direnean, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, eta proiektuan sartu beharko dira aldaketok: proiektuko neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-pleguetan.

2.C.– Babes neurriak eta neurri zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak, egitasmoaren sustatzaileak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera gauzatuko dira. Era horretan, batetik neurri horiek ezarrita, eta bestetik kontrola gauzatzeko pertsonala jarrita, kalitate-helburuak bermatu ahal izango dira: azterketan finkatutakoak eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen honetan ezarritakoak. Ondoko atal hauetan adierazten diren neurriak gehitu beharko dira.

Neurri horiek guztiak, obra kontratatzeko baldintzetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute.

Examinada la documentación técnica y los informes obrantes en el expediente del proyecto de referencia, y a la vista de que el estudio de impacto ambiental resulta correcto y se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Viceconsejería de Medio Ambiente, órgano competente para el dictado de la presente Declaración de Impacto Ambiental de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,

RESUELVE:

1.– Formular la presente Declaración de Impacto Ambiental del proyecto de emisario de Gorliz, tramo submarino, promovido por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, con carácter favorable.

2.– Fijar las siguientes condiciones para la realización del proyecto, las cuales son vinculantes de acuerdo con lo especificado en el artículo 47.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.A.– El proyecto se desarrollará de acuerdo con la documentación presentada en esta Viceconsejería de Medio Ambiente para la evaluación de impacto ambiental del mismo y específicamente de acuerdo con las determinaciones contenidas en esta Resolución.

2.B.– En los supuestos de cambios o ampliaciones del proyecto resultará de aplicación lo dispuesto en el artículo 50 de la Ley 3/1998, de 27 de marzo, General de Protección del Medio Ambiente General del País Vasco.

Las modificaciones puntuales del proyecto que, sin alcanzar la entidad de las consideradas en el párrafo anterior, surjan durante los trámites restantes para la realización de las obras, deberán justificarse también desde el punto de vista ambiental, debiendo incluirse en el proyecto las modificaciones correspondientes en el conjunto de medidas protectoras y correctoras, programa de vigilancia ambiental, presupuesto y pliego de condiciones.

2.C.– Medidas protectoras y correctoras.

Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo propuesto en la documentación presentada por el promotor del proyecto durante la Evaluación de Impacto Ambiental, de modo que el dimensionamiento de estas medidas y el personal asignado para el control garanticen los objetivos de calidad marcados en el estudio y los impuestos en la presente declaración de impacto ambiental. Deberán añadirse las medidas que se exponen en los apartados siguientes.

Todas estas medidas deberán quedar integradas en el conjunto de los pliegos de condiciones para la contratación de la obra, y dotadas del consiguiente presupuesto que garantice el cumplimiento de las mismas.

2.c.1.– Ondare naturala babesteko neurriak.

2.c.1.1.– Lurzorua erabili beharra dakarten obrak eta obra horien eragiketa osagarri guztiak, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean ezarritako mugen barruan egingo dira. Ahalik eta gehien mugatuko da azterlanean adierazi ez diren guneen erabilera: bai eremuak obrako materialez betetzea, eta bai obrako makinak eta ibilgailuak bertatik igarotzea.

2.c.1.2.– Arestian esandakoaren haritik, kontratistaren instalazioaren eremua, hustubidearen zama-ganbera eta, oro har, proiektuaren ondorio den edozein ekintza, aldez aurretik erabilitako eremuetan egingo dira, proiektuaren ingurunean dauden ingurumen-balio handieneko guneetatik kanpo. Adibidez: «Astondoko dunak» LIC ES 2130004 Garrantzia Komunitarioko Lekua.

Edonola ere, leku hori kaltetzea eragozteko, obrak egin aurretik, okupazioguneak zehatz-mehatz mugatu eta balizatu egin beharko dira; ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean daude finkatuta gune horiek. Muga hori Lanen Zuzendaritzak baimendu beharko du, eta, aldez aurretik, Ebazpen honen 2.c.9 paragrafoan aipatzen den txostena egingo du Ingurumen Aholkularitzak.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko kalterik egingo balitz, neurri zuzentzaileak eta guneak oneratzeko neurri egokiak ezarriko dira; aldez aurretik, Ebazpen honetako 2.c.9 paragrafoan adierazten den txostena egingo du Ingurumen Aholkularitzak.

2.c.1.3.– Kontratistak egokitu egin beharko ditu bere instalazioaren eremuak, egin nahi diren jarduerek ingurumenean dituzten eraginak txikiagotzeko.

2.c.1.4.– Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean adierazten denaren arabera, proiektuaren ingurunean honako hauek egon daitezke: belatz handia (Falco peregrinus), ubarroi mottoduna (Phalacrocorax aristotelis) eta ekaitz-txori txikia (Hydrobates pelagicus). Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan dauden espezieak dira. Espezie horiek edo beren habitatak kaltetu ditzakeen edozein jardueraren kasuan, xedapen hauetan ezarritakoa hartuko da aintzat: Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko uztailaren 9ko 167/1996 Dekretua, Bizkaian ubarroi mottoduna Kudeatzeko Plana onartzen duen ekainaren 19ko 112/2006 Dekretua eta Bizkaian ekaitz-txori txikia Kudeatzeko Plana onartzen duen ekainaren 19ko 116/2006 Dekretua.

Aurreko hori horrela izanik ere, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean aurreikusitakoaren arabera, lanak hasi baino lehen espezie horiek habiak egiteko erabiltzen dituzten puntuak aztertuko dira.

2.c.1.– Medidas destinadas a la protección del patrimonio natural.

2.c.1.1.– Las obras, así como el conjunto de operaciones auxiliares que impliquen ocupación del suelo se desarrollarán dentro de los límites establecidos en el estudio de impacto ambiental. Se restringirá al máximo el uso de espacios distintos a los señalados, tanto por ocupación con materiales de obra como por la circulación de maquinaria y vehículos de obra.

2.c.1.2.– De acuerdo con lo anterior, el área de instalación del contratista, la cámara de carga del emisario y en general cualquier actuación derivada del proyecto se localizarán en áreas previamente intervenidas, fuera de los espacios de mayor valor ambiental presentes en el entorno del proyecto, tales como el Lugar de Importancia Comunitaria LIC ES 2130004 «Dunas de Astondo».

En cualquier caso, con objeto de evitar afecciones sobre el citado lugar, con carácter previo a la realización de las obras deberá realizarse una delimitación precisa y balizado de las zonas de ocupación definidas en el estudio de impacto ambiental. Dicha delimitación deberá ser aprobada por la Dirección de Obra, previo informe de la Asesoría Ambiental mencionada en el apartado 2.c.9 de esta Resolución.

En caso de afecciones accidentales fuera del ámbito señalado, serán aplicadas las medidas correctoras y de restitución adecuadas, previo informe de la asesoría ambiental establecida en el apartado 2.c.9 de esta Resolución.

2.c.1.3.– Las áreas de instalación del contratista deberán ser acondicionadas por éste con objeto de minimizar los impactos ambientales derivados de las distintas actividades que se pretendan desarrollar.

2.c.1.4.– El estudio de impacto ambiental ha citado en el entorno del proyecto la posible presencia de halcón peregrino (Falco peregrinus), cormorán moñudo (Phalacrocorax aristotelis) y paíño europeo (Hydrobates pelagicus), especies incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestre y Marina. Para cualquier actuación que pueda producir el deterioro de ejemplares de las citadas especies o de sus hábitats, se tendrá en cuenta lo establecido en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, en el Decreto 167/1996, de 9 de julio, por el que se regula el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina, en el Decreto 112/2006, de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del cormorán moñudo en Bizkaia y en el Decreto 116/2006 de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del paíño europeo en Bizkaia.

Sin perjuicio de lo anterior, de acuerdo con lo previsto en el estudio de impacto ambiental, con carácter previo al inicio de las obras se realizará un reconocimiento de los puntos de nidificación de las citadas especies.

Orobat, azterlan horretan ezarritako neurri babesleak eta zuzentzaileak hartuko dira, zaratak eta dardarek labarretako espezie horiek eta itsasoko makrofauna kaltetzea saihesteko.

2.c.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Bete beharreko prozeduretan, ur kontinentalen eta itsasoko uren arloan eskumena duen organoak kasu bakoitzean ezartzen dituen baldintzak utzi gabe, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek hartu beharko dira:

2.c.2.1.– Lurrean egingo diren lanetan, drainatzesarera edo itsasora hauts fina ahalik eta gutxien bota beharko da. Horretarako, beharrezkoak diren neurri babesleak eta zuzentzaileak hartu beharko dira, obretatik ateratzen diren solido esekiak dituzten isuri-urak hondartzen gunera iristea saihesteko, bereziki bainu-aldian. Beharrezkoa bada, ura bideratzeko gailuak eta jalkinak atxikitzeko sistemak jartzeko proiektuak egin eta jarriko egingo dira.

Horretarako, eraikuntza-proiektuak eta obra kontratatzeko baldintza-agiriak eraikuntzako teknika eta ohitura onak erabili beharra ezarriko dute, adierazitako helburu hori bete dadin.

2.c.2.2.– Obretako makineria-parke bezala erabiltzeko azalera eta makineria horren mantentze-lanetarako zona, drainatze naturaleko saretik bereiziko dira. Zolata iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta urak kutsa ez ditzaten. Erregaien karga eta deskarga, olio-aldaketa eta aipatutakoa ez den zonatan egiteko lantegi-lanak debekatuko dituzte.

2.c.3.– Atmosferaren kutsadura saihesteko neurriak.

2.c.3.1.– Obrak dirauen bitartean, ibilbide publikoak garbitu egingo dira obrako ibilgailuak bide horietara sartzen diren guneetan, hautsik ez zabaltzeko. Behar izanez gero, lanek eragindako azalerak ureztatzeko sistema bat jarriko da eta lanen gunetik ibilgailuak irteten duten puntuan, ibilgailuak garbitzeko sistema ere ezarriko da, solidoei eusteko sistemari lotuta.

2.c.3.2.– Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreiatu ez daitezen.

2.c.4.– Soinuek eta bibrazioek eragindako efektuak gutxitzeko neurriak.

2.c.4.1.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege

Asimismo, se adoptarán las medidas protectoras y correctoras previstas en el citado estudio con objeto de prevenir afecciones por ruido y vibraciones sobre especies sensibles asociadas a los acantilados, así como sobre macrofauna marina.

2.c.2.– Medidas destinadas a la protección de las aguas y de los suelos.

Sin perjuicio de las condiciones que, en su caso, imponga el órgano competente en materia de aguas continentales o marinas en el marco de los procedimientos que resulten de aplicación, deberán adoptarse las siguientes medidas protectoras y correctoras:

2.c.2.1.– Las obras en tierra deberán realizarse minimizando la emisión de finos a la red de drenaje o al mar. Para ello deberán adoptarse las medidas protectoras y correctoras que resulten necesarias para evitar que las aguas de escorrentía cargadas con sólidos en suspensión procedentes de las obras alcancen la zona de playas, especialmente durante la temporada de baños. Si fuera preciso se proyectarán y ejecutarán dispositivos de conducción de aguas y sistemas de retención de sedimentos.

A tal efecto, el proyecto de construcción y los pliegos para la contratación de la obra deberán contemplar el uso de técnicas constructivas y la aplicación de buenas prácticas de obra necesarias para el cumplimiento del citado objetivo.

2.c.2.2.– La superficie destinada a parque de maquinaria de obra y la zona de mantenimiento de la misma se aislará de la red de drenaje natural. Dispondrá de solera impermeable y de un sistema de recogida de efluentes para evitar la contaminación del suelo y de las aguas por acción de aceites y combustibles. No se permitirá la carga y descarga de combustible, cambios de aceite y las actividades propias de taller en zonas distintas a la señalada.

2.c.3.– Medidas destinadas a la prevención de la contaminación atmosférica.

2.c.3.1.– Durante el tiempo que dure la obra se llevarán a cabo labores de limpieza de los viales públicos en los lugares de incorporación a éstos de los vehículos de obra, con objeto de evitar la dispersión de polvo al paso de vehículos. En caso de resultar necesario, se dispondrá de un sistema para riego de las superficies afectadas por las obras, así como de dispositivos de limpieza de vehículos a la salida de las zonas de obra, conectados a sistemas de retención de sólidos.

2.c.3.2.– El transporte de los materiales de excavación se realizará en condiciones de humedad óptima, en vehículos dotados con dispositivos de cubrición de la carga, con objeto de evitar la dispersión de lodos o partículas.

2.c.4.– Medidas destinadas a aminorar los efectos derivados de los ruidos y vibraciones.

2.c.4.1.– De acuerdo con lo previsto en el artículo 22 del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, por

Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, zonakatze akustikoa, kalitate helburuak eta ateratako zaratari dagokionez, lanetan erabiliko diren makinek, aire librean erabiltzeko makinen zaratari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko dute. Batez ere otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko dute, hau da, aire librean erabiltzeko zenbait makinek atera dezaketen zarata arautzen duena, eta gainerako arau osagarriak.

2.c.4.2.– Urpeko zangak egiteko leherketa-proiektuak diseinatzeko orduan, ondorioak kostalderantz ahalik eta gutxien zabalduko direla bermatuko da.

2.c.4.3.– Leherketak UNE 22-381-93 arauaren arabera egin behar dira; hortaz, ingurumen-inpaktuaren azterlanaren eremuan dauden eraikin eta instalazioetan eragindako bibrazioek ezingo dituzte arauan ezarritako mugak gainditu.

2.c.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.5.1.– Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira, honelako hondakinak barne direla: indusketa hondakinak, obra-arloak prestatzeko eragiketetatik sortzen direnak, enbalajeak, baztertzen diren lehengaiak eta garbiketa lanetako soberakinak.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen balioztatzaile batengana eraman behar dira.

Hondakinak deuseztatzera bidali ahal izango dira baldin eta aldez aurretik horiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideraezina dela frogatzen bada soilik.

2.c.5.2.– Hondakindegira eraman behar diren hondakinak, hondakinak hondakindegian utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan eta hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat.

Lur-beteketa eta egokitzetara bideratu behar diren hondakinei dagokienez, horiek hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Lur-beteketetan eta lurzoru egokitzeko lanetan, kutsatzaile edukiari dagokionez, A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik dauden materialak baimenduko dira bakarrik. Adierazle horiel que se desarrolla la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, la maquinaria utilizada en la fase de obras debe ajustarse a las prescripciones establecidas en la legislación vigente referente a emisiones sonoras de maquinaria de uso al aire libre, y en particular, cuando les sea de aplicación, a lo establecido en el Real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre, y en las normas complementarias.

2.c.4.2.– Los proyectos de voladura para la ejecución de las zanjas submarinas se diseñarán de modo que se minimice la propagación de sus efectos en sentido a la costa.

2.c.4.3.– Las voladuras deberán ajustarse a la norma UNE 22-381-93 de modo que las vibraciones registradas en las edificaciones e instalaciones comprendidas en el ámbito del estudio de impacto ambiental no sobrepasen los límites previstos en la misma.

2.c.5.– Medidas destinadas a la gestión de los residuos.

2.c.5.1.– Los diferentes residuos generados durante las obras, incluidos los procedentes de excavaciones, los resultantes de las operaciones de preparación de los diferentes tajos, embalajes, materias primas de rechazo y de la campaña de limpieza, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o ambientalmente viable.

2.c.5.2.– Los residuos con destino a vertedero se gestionarán además de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados. Dichos residuos deberán de ser caracterizados conforme a la Decisión 2003/33/CE del Consejo, de 19 de diciembre de 2002, por la que se establecen los criterios y procedimientos de admisión de residuos en los vertederos con arreglo al artículo 16 y al anexo II de la Directiva 1999/31/CEE.

Los residuos con destino a relleno o acondicionamiento de terreno se gestionarán de acuerdo con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados.

Únicamente se permitirá la deposición en rellenos o acondicionamientos de terreno de materiales con contenidos en contaminantes por debajo de los valores indicativos de evaluación VIE-A, recogidos en el anexo I

ek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinak jasotzen ditu.

2.c.5.3.– Zulaketa egiterakoan sortutako lokatza, ingurumen-inpaktuaren azterlanean ezarritakoarekin bat etorriz, prentsa-iragazki edo iragazki zentrifugo baten bidez tratatuko da, eta fase solidoa baimendutako zabortegian utzi beharko da.

2.c.5.4.– Erabilitako olioei dagokienez, erabilitako industria-olioen kudeaketari buruzko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua aplikatuko dira.

Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko dira.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitz gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

2.c.5.5.– Araudi hau betetzea errazte aldera, zeregin desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatuko dira. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte eta beraiek arduratuko dira langileei behar bezala betearazteaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean eta makineria mantentzeko lanak egitean, ezta hondakinik erreko ere.

Aurrekoa kontuan izanik, kontratistaren instalazio-eremuetan gune berezi bat egokituko da, hondakin arriskutsuak (olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi baterako biltzeko instalazio estaliekin, eta gainera, instalazio horietatik bereiztuta, hondakin inerteentzako edukiontziak jarriko dira. Halaber, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak jarriko dira obran (bidoiak, e.a.). Hondakinok euren izaeraren arabera bereiztuko dira, betiere aipatutako puntu garbian aldi batez biltegiratu ondoren.

2.c.5.6.– Lanetan sortutako hondakinen jarraipenari buruzko txostena egingo da, eta hondakin horien kontrolerako, jarraipenerako eta egokitzapenerako agiriak erantsiko dituzte gainera, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

2.c.5.7.– Indusketa eta lur-mugimendu garaian lurzoruaren kutsaduraren aztarnaren bat atzemanez gero,

de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la Prevención y Corrección de la Contaminación del Suelo.

2.c.5.3.– Los lodos procedentes de la perforación serán tratados, de acuerdo con lo previsto en el estudio de impacto ambiental, mediante filtro prensa o centrífuga, debiendo depositarse la fase sólida en vertedero autorizado.

2.c.5.4.– Los aceites usados se deberán gestionar de conformidad con el Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, por el que se regula la gestión de los aceites industriales usados.

En tanto en cuanto no se proceda a la implantación de un sistema integrado de gestión autorizado en los términos previstos en el mencionado Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, se deberá dar cumplimiento a las previsiones contempladas en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hasta el momento de su entrega a gestor autorizado, el almacenamiento de aceites agotados se realizará en espacios bajo cubierta, en recipientes estancos debidamente etiquetados, sobre solera impermeable y en el interior de cubetos o sistemas de contención de posibles derrames o fugas.

2.c.5.5.– Con objeto de facilitar el cumplimiento de esta normativa, deberán disponerse sistemas de gestión de los residuos generados en las diferentes labores. Estos sistemas serán gestionados por los encargados de dichas labores, que serán responsables de su correcta utilización por parte de los operarios. En particular, en ningún caso se producirán efluentes incontrolados procedentes del almacenamiento de combustibles y productos y del mantenimiento de la maquinaria, ni la quema de residuos.

De acuerdo con lo anterior, en las áreas de instalación del contratista se procederá al acondicionamiento de una zona específica que comprenda instalaciones cubiertas para almacenamiento provisional de residuos peligrosos tales como latas de aceite, filtros, aceites, pinturas, etc., habilitando además, y separados de aquéllos, contenedores específicos para residuos inertes. Asimismo, a lo largo de la obra se instalarán dispositivos estancos de recogida (bidones, etc.) de los residuos generados, procediéndose a su separación de acuerdo con su naturaleza, todo ello previo a su almacenamiento temporal en el mencionado punto limpio.

2.c.5.6.– Deberá elaborarse un informe comprensivo del seguimiento ambiental de los residuos generados en las obras, incorporando los documentos de control, seguimiento y aceptación de residuos contemplados en la legislación vigente.

2.c.5.7.– En el caso de que en el transcurso de las obras de excavación y movimiento de tierras se detecten

otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, bere 10.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatuko da.

2.c.6.– Kultura ondarea babesteko neurriak.

Uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe, honako neurri babesle eta zuzentzaileak hartuko dira:

2.c.6.1.– Ingurumen-inpaktuaren azterlanean ezarritakoarekin bat etorriz, obrak hasi baino lehen, prospekzio arkeologikoa egingo da urpeko instalazioetarako proiektatutako trazatuan, bai eta instalazio horiekin lotuta urpean egin behar diren lanen gunean ere. Prospekzio horren emaitza Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailera igorriko da.

2.c.6.2.– Obrak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat aurkituz gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari jakinaraziko zaio berehala, eta har erabakiko zein neurri hartu behar diren.

2.c.7.– Obrak lehengoratu eta integratzeko neurri zuzentzaileak.

2.c.7.1.– Lanek erasandako alde guztiak leheneratuko dira; baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean agertzen ez zirenak baina azkenean, proiektuaren ondorioz kaltetu direnak ere. Alde horiek leheneratzeak landarez estali daitezkeen eremu guztiak landareberritzea esan nahi du.

2.c.7.2.– Lur mugimenduen garaian, lur begetala modu desberdinean kendu, pilatu eta zabalduko da, ondoren eragindako espazioak leheneratzeko eta landareberritzea errazteko. Lanak amaitu ostean erabiltzeko kenduko den lur begetala modu egokian biltegiratuko da, lurra ez trinkotzeko, modu desegokian ez pilatzeko eta euria egiten duen egunetan gaizki ez manipulatzeko.

2.c.7.3.– Ingurua lehengoratu ondorengo bi urteetan, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteetan berriz landareak aldatu.

2.c.8.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Lanak amaitu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da, proiektuaren eremutik obra-hondar guztiak garbitzeko. Eraispenetatik, enkofratuak kentzetik, eta oro har, garbitze-lanetan sortutako hondakinak lanen eremutik kendu eta Ebazpen honen 2.c.5 paragrafoan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.9.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, kultura-ondarearen zaingoan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan, ondo jantzitako

indicios de contaminación del suelo deberá actuarse de acuerdo con lo previsto en el artículo 10.2 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la Prevención y Corrección de la Contaminación del Suelo.

2.c.6.– Medidas destinadas a la protección del patrimonio cultural.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se adoptarán las siguientes medidas protectoras y correctoras:

2.c.6.1.– De acuerdo con lo previsto en el estudio de impacto ambiental, con carácter previo al inicio de las obras se realizará una prospección arqueológica en el trazado proyectado para las instalaciones submarinas, así como en el área donde se vayan a producir trabajos subacuáticos relacionados con el mismo. El resultado de dicha prospección será remitido al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.c.6.2.– Si en el transcurso de las obras se produjera algún hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico, se informará de forma inmediata al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia que será quien indique las medidas a adoptar.

2.c.7.– Medidas correctoras destinadas a la restauración e integración de las obras.

2.c.7.1.– Se restaurarán todas las áreas afectadas por la obra, incluidas aquéllas que no figurando en el estudio de impacto ambiental resulten alteradas al término de la misma. Dicha restauración implicará la revegetación de todos los espacios susceptibles de mantener una cubierta vegetal estable.

2.c.7.2.– Durante los movimientos de tierra, la tierra vegetal se retirará, acopiará y extenderá de forma diferenciada, con objeto de facilitar las labores de restauración y revegetación de los espacios afectados. La tierra vegetal retirada para su posterior utilización en las labores de revegetación, será almacenada de forma apropiada, evitando su compactación, acopio inadecuado y manipulación en días de lluvia.

2.c.7.3.– Durante los dos años posteriores a la restauración se deberán realizar labores de mantenimiento consistentes en entrecavas, abonados, riegos y reposición de marras.

2.c.8.– Limpieza y acabado de obra.

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras. Los residuos resultantes de posibles demoliciones, retirada de encofrados y en general, de las operaciones de limpieza, serán desalojados de la zona y gestionados de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2.c.5 de esta Resolución.

2.c.9.– Asesoría ambiental.

Hasta la finalización de la obra y durante el período de garantía de la misma, la Dirección de Obra deberá contar con una asesoría cualificada en temas ambien-

aholkularitza eduki beharko du Obraren Zuzendaritzak, ingurumenaren eraginari buruzko azterlaneko erabakien arabera. Betekizunen pleguan Obraren Zuzendaritzari izendatutako egitekoak direla eta, aipatutako gaiei buruz Obraren Zuzendaritzak erabakiak hartu aurretik aholkularitza horretako espezialistek egindako txostena hartu beharko dute gogoan.

2.D.– Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da. Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

Programa hau, obra kontratatzeko baldintza-orrietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

2.d.1.– Proiektua gauzatzen ari den garaiko zaintza.

Oro har, lanean irekitako zuloetatik uretara isurketak gerta daitezkeenean, urak isuri aurretik ur horiek bideratu, drainatu eta eusteko gailuak ondo dabiltzala egiaztatuko du ebazpen honen 2.c.9 idatz-zatian aurreikusitako ingurumen-aholkularitzak, astean behin; batez ere, euri-garaietan.

2.d.2.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurugiro Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egin beharko da eta, obrak amaitzen direnean, nolanahi ere, Sailburuordetzara bidali beharko da. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, ingurumenean eragin dezaketen kaltearen ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.3.– Uren kalitatearen kontrola.

Hustubidearen funtzionamendu-fasean, sustatzaileak ingurumena zaintzeko proposatutako programaz gain, hala badagokio, lehorretik itsasora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2.d.4.– Egitura ikuskatzea.

Hustubidearen eta difusoreen egitura eta funtzionamendua ikuskatuko da, egoera onean daudela jakiteko behar besteko maiztasunez.

2.d.5.– Leheneratzearen arrakasta kontrolatzea.

Landareberritzeko lanen ondoren, landareberritu diren guneak kontrolatu eta horiek jarraipena egingo da sei hilero, bi urtean gutxienez. Jarraipen horren bidez kontrolatu eta zehaztu ahal izango da higaduraren ebotales, conservación del patrimonio cultural, y medidas protectoras y correctoras, según las determinaciones del Estudio de Impacto Ambiental. Las resoluciones de la Dirección de Obra relacionadas con las funciones que le asigne el pliego de condiciones sobre los temas mencionados deberán formularse previo informe de los especialistas que realicen dicha asesoría.

2.D.– Programa de Vigilancia Ambiental.

El Programa de Vigilancia Ambiental deberá ejecutarse de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, debiendo añadirse los controles que a continuación se detallan.

Este programa deberá quedar integrado en el conjunto de los pliegos de condiciones para la contratación de la obra, y se dotará del consiguiente presupuesto que garantice el cumplimiento del mismo.

2.d.1.– Vigilancia durante la ejecución del proyecto.

Durante la fase de obras, allá donde se encuentren abiertos tajos de obra en los que se puedan generar vertidos al medio acuático, la asesoría ambiental prevista en el apartado 2.c.9 de esta Resolución efectuará con periodicidad semanal una comprobación del buen funcionamiento de los dispositivos de canalización, drenaje y retención de aguas previos al vertido de éstas, principalmente en periodos de lluvias.

2.d.2.– Registro de eventualidades.

Deberá llevarse un registro de las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras. Dicho registro deberá estar disponible para su inspección por la Viceconsejería de Medio Ambiente, y remitirse a ésta, en cualquier caso, al finalizar las obras. Deberán documentarse detalladamente las modificaciones puntuales que, en su caso, hayan sido introducidas durante la ejecución del proyecto. Dichas modificaciones deberán justificarse desde el punto de vista de su incidencia ambiental.

2.d.3.– Control de la calidad de las aguas.

Durante la fase de funcionamiento del emisario, el programa de vigilancia ambiental propuesto por el promotor deberá complementarse, en su caso, con las condiciones que se establezcan en la autorización de vertido tierra-mar.

2.d.4.– Vigilancia estructural.

Se realizará una vigilancia estructural y funcional del emisario y difusores con la periodicidad adecuada para conocer su estado de conservación en todo momento.

2.d.5.– Control del éxito de la restauración.

Con posterioridad a la ejecución de las labores de revegetación, se realizará sobre las mismas un seguimiento y control semestral, al menos durante dos años tras la finalización de dichas labores, a fin de determinar su

luzioa, paisaiaren leheneratzea eta landareberritutako eremuak behar bezala mantentzen direla.

2.d.6.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bategina landu beharko du, Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean, eta Ebazpen honetan proposatu diren betebehar guztiak bilduko dituena.

Programa horretan kontrolatuko diren parametroak eta parámetro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginketarako eta analisirako metodología, kontrolerako puntuen kokapenari buruzko kartografía xehatua, horien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

2.d.7.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean emaitzen analisia jasoko da, epe horretan emandako gertakari nagusiak, gertakarien arrazoiak eta konponbideak bereziki aipatuta.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez eta Herri Administrazioen ikuskaritza zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jarduketaren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

2.F.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumenaren Sailburuordetzara, espedientean sar daitezen:

evolución, control de la erosión, recuperación paisajística y aplicación de un correcto mantenimiento de las áreas revegetadas.

2.d.6.– Documento refundido del programa de vigilancia ambiental.

El promotor deberá elaborar un documento refundido del Programa de Vigilancia Ambiental, que recoja el conjunto de obligaciones propuestas en el Estudio de Impacto Ambiental, y las fijadas en la presente Resolución.

Este Programa deberá concretar los parámetros a controlar con indicación de valores de referencia para cada parámetro, la metodología de muestreo y análisis, la localización en cartografía de detalle de los puntos de control, la periodicidad de los mismos y un presupuesto detallado para su ejecución.

2.d.7.– Remisión de resultados del programa de vigilancia ambiental.

Los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia quedarán debidamente registrados y se remitirán a esta Viceconsejería de Medio Ambiente. Dicha remisión se hará con una periodicidad anual y los resultados del Programa de Vigilancia deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad especializada en temas ambientales. Dicho informe consistirá en un análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este periodo, sus posibles causas y soluciones.

Sin perjuicio de la normativa que sea de aplicación en cada caso, los diferentes datos se almacenarán por parte del promotor del proyecto en un soporte adecuado durante al menos dos años, estando a disposición de los servicios de inspección de las Administraciones Públicas.

2.E.– Las medidas protectoras y correctoras, así como el programa de vigilancia ambiental podrán ser objeto de modificaciones, incluyendo los parámetros que deben ser medidos, la periodicidad de la medida y los límites entre los que deben encontrarse dichos parámetros, cuando la entrada en vigor de nueva normativa o cuando la necesidad de adaptación a nuevos conocimientos significativos sobre la estructura y funcionamiento de los sistemas implicados así lo aconseje. Asimismo, tanto las medidas protectoras y correctoras como el programa de vigilancia ambiental podrán ser objeto de modificaciones a instancias del Promotor de la actividad, o bien de oficio a la vista de los resultados obtenidos por el programa de vigilancia ambiental.

2.F.– Sin perjuicio de lo dispuesto en anteriores apartados de esta Resolución, el promotor deberá remitir a la Viceconsejería de Medio Ambiente, para su incorporación al expediente, los documentos siguientes.

2.f.1.– Obrak hasi baino lehen, ingurumena zaintzeko programaren testu bategina.

2.f.2.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epean baino lehen, obrak garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, ebazpen honen 2.d.1 idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera.

Obrak amaitu eta bi hilabeteko epean baino lehen, hondakinen jarraipenaren txostena, 2.c.5.6 idatz-zatian adierazitakoaren arabera.

2.f.3.– Urtero, obrak hasten denetik, ebazpen honen 2.d.7 idatz-zatian aurreikusitako ingurumena zaintzeko programari buruzko dokumentua.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 47.8 artikuluaren arabera, bi urteko epea ezartzea proiektua exekutatzen hasteko, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 27a.

Ingurumen sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

2.f.1.– Con anterioridad al inicio de las obras, el documento refundido del programa de vigilancia ambiental.

2.f.2.– En un plazo no superior a 2 meses a contar desde la finalización de las obras, el registro de las eventualidades surgidas durante su desarrollo, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras, de acuerdo con lo previsto en el apartado 2.d.1 de esta Resolución.

En un plazo no superior a 2 meses a contar desde la finalización de las obras, el informe comprensivo del seguimiento ambiental de los residuos señalado en el apartado 2.c.5.6 de esta Resolución.

2.f.3.– Con una periodicidad anual desde el inicio de las obras, el documento relativo al programa de vigilancia ambiental previsto en el apartado 2.d.7 de la presente Resolución.

3.– Imponer, de acuerdo con el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, un plazo para el inicio de la ejecución del proyecto de 2 años, a contar desde la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin haberse procedido al inicio de la ejecución del proyecto, por causas imputables al promotor, la Declaración de Impacto Ambiental perderá toda su eficacia. No obstante, el órgano competente podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución si existieran causas debidamente justificadas.

4.– Informar que, de acuerdo con el artículo 14.3 del Real Decreto Legislativo 1/2008 de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el promotor del proyecto deberá comunicar al órgano ambiental, con la suficiente antelación, la fecha de comienzo de la ejecución del mismo.

5.– Ordenar la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2008.

El Viceconsejero de Medio Ambiente,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.